

***Elkano* liburu berritua argitaratu da. Izlaria: José de Arteche, egilea bera**

Zeruko Argia, 356. zk., 1969-12-28: 11

Abenduaren 11-an, eta Donostiko Aurrezki-Kutxaren "Actualidades" aretoan gertatuta, egin zuan José de Arteche jaunak bere *Elkano* liburu berritua aurkezteko itzaldia mamitsua.

Itzaldia bera aitatu baiño lenago, itz bat.

1

Diruaren iturbidea gizonaren izerdia da; diruak ba du bere zertarakoa ere: gizonaren artu-emanak pizkortu ta gizon osoaren mugigarri izatekoa. Gizon osoarena. Ez gizonaren este-ontzi ta gañontzeko soin-adarrena bakarrik; baita berekiko ta goiko duan espiritu-arnas orrena ere.

Orain errepa:

Erriko dirua Aurrezki-Kutxak lanean jartzen du. Baiñan, lanean norentzako? Erri beraren irabazirako noski, ta Aurrezki-Kutxan erakundeetarako ere bai, bidezko baita. Baiñan zertarako ematen dira irabazi oiek? Etxeak eta fabrikak egiteko. Ondo dago. Ta bizi-bideak zabaldu ta arintzeko. Baita. Baiñan nola bizitzeko?: nundik gatozen, nor geran eta nora goazen jakin gabe irauteko?; guk zanko bat aurrera ta gure semeak beste bat atzera emateko bideak ibiltzeko?; gu semerik gabe geratzeko, ta gure aurrak aiton-amonik eta gurasorik gabe, umezurtz, uzteko?

Bakoitza berearen nagusi bear luke.

Ara or atera dan *Guipúzcoa* izeneko liburu ederra; Gipuzkoa probintziko Aurrezki-Kutxak argitaratu du, ta ondo dago. Ta ara orain Donostiko Aurrezki-Kutxa ere liburu onen irteerak kezkatuta bere aretoa eskeiñi; ta au ere ondo dago. Batzuek geiago, besteak gutxiago, ari dira diru-etxe bat zuek gure erriari, euren erriari, laguntzen. Eta ara emen gu: gutxi baiño geiago laguntzen digun diru-et xeari eman bear dizkiogu gure diruak; eta gutxi baiño gutxiago ematen digunari, bat ere ez.

Aukera gurea da.

2

Elkano liburua Jose de Artechek aspaldi egiña du ba dira 27 urte.

Bere itzaldian zion bezela, garai artan Zarautzen bizi zan egillea; San Ignazioren bizi-kondaira bukatu berria zeukan, eta Getarira pasiatzen zijoala bein baiño geiagotan gogora etortzen omen zitzaizkion bere aitonak ainbat aldiz kontatutako Elkanoren itxas-inguratze ibillaldi luze ta neketsu artako gertaera arrigarriak. Eta San Anton menditik

errira begira zegoala, Getariko eliz ederraren barruak esaten ziotenarekin, sortu zitzaion San Ignazioen beste erritar eta adiñ bereko ta ia leku bertako euskeldun ospetsu omen bizi-kondaira egiteko gogoia.

Ta ez barruko su erakille onek eraginda bakarrik, baita asarreak bultzata ere.

Garai artan-edo irakurri omen zuan egilleak Stefan Zweig idazle ospatsuak idatzia zeukan Magallanes izeneko liburua. Zweigek, egia da, mukerkeriz edo otztasunez, eta baita begi-zearrez ere, begiratuta tajutzen du gure erritarra; bear ba da Magallanes bera geiago jasotzeko artu zuan egite bat izan zan; guk ez jakiñ; baiñan nola nai guretzat okerra izan zan, eta iraingarria ere bai; ala, orain dala ogei ta zazpi urteko José de Arteche mindu zuan, eta oraindik egin ez zan Elkanoren bizi-kondaira egitera bultza zuan.

Ara nundik etorri zitzaigun gure Elkano itxas-gizon trebe ta ausartaren *lenengo* biografia: askotan izan oi baitira okerrek direla uste degun bideak zuzenak.

Lenengo edizio ura Espasa Calpek argitaratu zion.

Gero, liburua urten eta gero, eta maiz gertatu oi dan bezela, Joxe bere asegabe utzi zuan; eta lañotasun batek eraginda, bere uste au xaloki aitortu zuan nunbait. Aitortu ez balu obe! Geroztik bere itz berekin zigortua izan zan idazlea. Ta ala zion Arteche jaunak, alegia sortzailleak ez duala beiñere bere lana gutxi-etsi bear; lan bakoitzak bere errespetua merezi duala, ta idazleak berak ere ez duala oinperatzeko eskubiderik.

Alaxe da: idaz-lan bakoitza bere giro ta leku ta orduko semea baita.

Oraingo erantsi berriekin aberastuta egin dan edizio au Javier Aranburuk bere ardurapean daukan "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A."ek argitaratua izan da; ta, ain zuzen, lur-biratzeko ibilte arrigarri ura asi zuteneko 450 urte-urrenean, urrillak 20, Gráficas Izarran, bukatua.

3

Elkano izena dala-ta gauz jakingarriak esan zituan izlariak.

Orain dala berrogei ta amar urte, lur-bira egin zutenaren 400 urtebetetzea ospatzeko gure artean antolatu ziran jaietan, Juan Sebastian *del Cano* izena erabili zuten. Zuloaga margolaria bera ere zulo orretan sartu zan: Gipuzkoako Diputazioak agindu zion kuadroan alaxe jarri baizuan: "Así me parece que debió ser nuestro gran Sebastian del Cano". Baiñan gero, 1920-an bertan, don Serapio de Mujikak bizladu zien idatzia: "Elkano y no Cano. Escrito presentado a la Junta del Centenario de Juan Sebastian de Elcano", ta baita urrungo urtean, 1921-an, Eujenio Urroz Errok beste bat idatzi ere: "Cano y Elcano". Ta gero Telesforo de Aranzadi (1922) ta Segundo Izpizuak berak ere bai.

Ta oiek ondo zioten bezela izan.

Aya, Zarautz eta Getariaren gain batean dago Elkano auzoa; garai batean Ayako erria auzo onen menean egon zan (garai bateko Irun orduko Ondarribiaren ardurapean egon zan bezela) ta *Ayako Elkano* deitzen omen zitzaion. Eliz inguruan iru baserri omen daude: *Elkano-goena*, *Elkano-erdi* ta *Elkano-barrena*. Ao jakintzak dionez, *Elkano-joenatik* datorren jatorrikoa omen zan Juan Sebastian de Elkano.

Emen Elkano palta izan bazitzaigun ere. Naparroan berta ba da Elkano izeneko erri bat: beste Beristain de Elkano izeneko bizi-leku bat ere bai, ta Donostian bertan ere ba omen da bestea.

Egia tapatzeko Cano ori baiño ille beltzago duan norbait arkitu bearke dute beran.

4

Lurr-bira egitera urten ziraneko 1519-an, Juan Sebastian Elkanok ogei ta amabi urte zituan. San Ignazio baiño lau urte zarragoa ta ogei ta amar kilometro inguruko lur-tartean jaioa; Legazpi baiño 13 urte nagusiagoa zan. Frantzisko Xabier baiño 19 urte ta Urdaneta baiño 21 zarragoa.

Ba zan gizona garai artako Euskalerrian.

Elkano noiz jaioa danaren berri ba degula, zion Arteche jaunak, baiñan bere gizon bezela nolakoa zanaren tutik ere ez alajaiña. Bere ikusi zutenak ba dira (batez ere Indietako berri-emaille Gonzalo Fernández de Oviedo) baiñan ez digute txikia edo aundia, illegorria edo beltzarena zanik, eta ez me edo lodi zapik ere esaten.

Zuloagak ere, bere izenaren antzeko ziurtasunarekin mosu-belarriak eta gorputza asmatu ba zizkan, Diputazioan daukagun gizona ez da gure getariarra zanaren antzekoa ere.

Izlariak zionez, bere giza-irudiaren ordez, gogoz eta izatez bera nola zanekoaren erretratu bat utzi zigun bere testamentuan, eta baita 1587-an Mexicon azaldu zan García de Palaciok idatzitako *Instrucción Náutica para el buen uso y regimiento de las naos* liburuan ere. Emen irakurrita daki Arteche jaunak getariar ura gizon abilla zala, kontuak eramaten ona ta zintzoa, itxas lanetan jakintsua, ontziak kargatzen oso ondo zekiana, ta, gañera, "gizon ona". Ba zan gizon ura aurkoak aiñekoa.

Ausarta gaiñera.

Gaur egun illargira joan diranak ere ez dute, gero, gizon aien bakartasdaderik sentitu! Illargia urrutirago dagoala esango du norbaitek, eta aizea baiño ura lodiagoa ta igeri-errezagoa dala ere bai. Ta ala da. Baiñan orduko gizon aien itxaso gaur gure izartegia bezin ez-ezaguna izan; ontziei abiadura kontuan artuta, ur-ontzien bidea luzeagoa ere bai, ta garai artako ur-ontziak gaurko su-ziriak aiñeko arrixkoak zituztenak ziran. Geiago: itxas-gizon aiek ez zuten bestez elkar egoteko errati-biderik eraman, eta au edo ura gertatzerakoan, ura edo au egiteko lagunduko zien iñor ere ez. Ontziak zerbait jo (arkaitz maparik ez!) eta bidean betiko geratuko ez ba ziran, egunez bakarrik mugitzen omen zan *Victoria* izeneko azken arte iraun zuan ontzi txiki au (85 tonelekoa: tonel bakoitza toneladaren 6-tik 5). Cañontzekoak: *Trinidad*, *San Antonio*, *Concepción* eta *Santiago*, bidean galdu ziran; eta urten ziran 265 gizonetik ere 247 bide luze ta neketsu orretan il ziran. Elkano ontzi kaxkar eta bakarrean beste 17 gizonekin iritxi baizan.

Arteche jaunak zion bezela, bakoitza bere giro ta ordu ta tokian jarri bear dira balioak berdinkatzeko.

Victoria ontzi au Zarautzen egiña izan omen zan. Orain arte ez zan ziurki esateko probarik; baiñan don Fausto Arozena edeslari ospatsuak arkitu duanez. Elkano berak eskatu ta gero Zarautzen bertan egiña izan zala. Jakiña da, ta au ziurki, oraindik argitaratu

gabe Diputazioan gordeta dagoan idazti batek dion bezela, orduan Zarauzko Urteta-ren ontzitegian 300 toneleko ontziak ere egiten omen ziran.

Oiek danak eta geiago esan zituan Arteche jaunak leporaño beteta zegoan "Actualidades" zine-aretoan.

Azkeneko galde-erantzunetan itandu zioten, ia, ba, orren ospatsua gure gizona izan eta nola lenengo ibillaldi omen urren gertatu zuten beste ibillaldi batean Elkano bera bigarren utzi ta gidari nagusi bezela aundikia zan Fray de Loaysa. Burgos de Osmako obispo jaunaren anaia, artu zuten?

Erantzun bearrik bai al dago?